

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko urtarrilaren 31ko erabakiaren laburpena, zeinen bitartez Gasteizko Udalak garapenean laguntzeko proiektuetarako 2020. urtean emango dituen dirulaguntzak arautuko dituen deialdi publikoa egiten baita

BDNS(Identif.): 494765

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>):

Lehen. Onuradunak

Irabazi-asmorik gabeko gobernuz kanpoko organizazio edo entitateek eskatu ahal izango dute dirulaguntza, baldin eta beren jarduerak deialdi honen xedearekin bat badatoz, eta Gasteizen duten presentzia eta jardunari eusten badiote.

Bigarrena. Helburua

Garapen-bidean dauden herrialdeetan lankidetzak Garapenerako Lankidetzaren 2016-2019ko Gida-planaren (2020ra luzatua) helburuei erantzuten diotenak finantzatzeko laguntzak ematea da deialdiaren xedea. Hortaz, atal hauetan dago egituratuta:

UK atala: urteko proiektu kateatuak, hiru urtez 2020, 2021 eta 2022 jarraitutasuna izateko perspektibarekin. 2020ko ekitaldiko zuzkidura ekonomikoa: 1.050.000,00 euro. Kopuru horretatik, gehienez ere 80.000 euro bideratu ahal izango dira proiektuak formulatzeko lanetara.

PT atala: Gehienez sei hilabeteko epean gauzatzekoak diren proiektu txikiak. Diru-zuzkidura: 100.000,00 euro.

Hirugarrena. Oinarriak

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko urtarrilaren 31n onartu zituen, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

1.150.000 eurokoa da deialdiaren zuzkidura.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta:

2020ko martxoaren 18ra arte, laburpen-agiriak eta, behar denean, behin betiko formulazioa egiteko dirulaguntza-eskabidea.

2020ko ekainaren 30era arte, PT ataleko eskabideak eta behin betiko proiektuak.

2020ko uztailaren 30era arte, UK ataleko eskabideak eta behin betiko proiektuak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 31

Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saileko Administrazio Zerbitzuen burua
ROSA ANA URTARAN URTARAN